

EUSKALTZAINDIA 2014-07-18

Kaixo eta egun on guztioi!

Erramun Osaren hitz zuhur eta jakintsuei jarraiki bi hitz soilik.

Batetik, neure esker beroa nigan begiak ezarri dituzuen euskaltzainei, ohorezko euskaltzain izendatzeko. Ez nuen espero eta ez nuen uste horrelakorik iritsiko zitzaidanik. Baina hala iritzi diozuenez, bego horretan, ongi etorria.

Alabaina, ezin utzi adierazi gabe horren inguruko kezkatxo bat. Ebanjelioko harena. San Pedrok ez ote didan esango: Dionisio, zertara hator hona, hartua duk hik jada heure saria.

Bestetik, aukera eman didazuenez, baliatu nahi nuke: lehenik eta behin, zorionak emateko beren eguneroko hizkuntza euskara dutenei, eta gomendatzeko, hertsiki atxiki dakizkion ohitura horri; ondoren, zorionak orobat beren xede handia, xedeetako bat, euskara sustatzea dutenei; gaur, bereziki, Euskaltzaindiaren inguruan zabilzatenoi; baita, ordea, hainbat eta hainbat txokotan eta txokotatik tira eta tira, bultza eta bultza ari direnei ere. Eta gomendatu nahi nieke, atxiki dakizkiola helburu horri: bihotz zabal, esku zabalago, buru zuhur eta argi, suharki baina apal, ekin eta ekin, amore eman gabe.

Eskerrak entzuteagatik; are gehiago, aintzat hartzeagatik.

Dionisio Amundarain
Bilbon, 2014ko uztailaren 18an